



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Langileak Kudeazeko Zuzendaritza
Lan Arriskuen Prebenzioa

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA
LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Gestión de Personal
Prevención de Riesgos Laborales

Enpresa Jarduerak Koordinatzeko Prozedura



Aurkibidea

1. Xedea	1
2. Aplikazio eremua	2
3. Erantzukizunak.....	2
4. Koordinaziorako baliabideak eta beharrezko dokumentazioa	2
4.1 Ikastetxeak enpresari edo langile autonomoari eskatu behar dion informazioa	3
4.2 Ikastetxeak enpresari edo langile autonomoari eman behar dion informazioa	3
5. Jarduteko prozedura.....	4
5.1 Dokumentazioa eskatzea eta informazioa partekatzea	4
5.2 Koordinaziorako hasierako bilera eta bilerako akta	4
5.3 Ikastetxeko langileei informazioa ematea	5
6. Ikastetxeetako obretarako enpresa parte hartzaileen prozeduraren berezitasunak.....	6
6.1 Proiekturik gabeko lanak	6
6.2 Larrialdietarako obrak.....	7
6.3 Proiektu teknikoa prestatzea	7
7. Lege erreferentziak.....	8
8. Fluxugrama	9
9. Dokumentuak eta eranskinak (I eta II)	10
9.1 1. dokumentua	10
9.2 2. dokumentua	12
9.3 3. dokumentua	13
9.4.- I. eranskina	15
9.5.- II. eranskina.....	17



1 Xedea

Prozedura honen xedea da enpresa-jardueren koordinazioari buruzko obligazioak betetzea urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuak xedatzen duena betez; dekretu horrek Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24.artikulua garatzen du. Helburua bertako zein kanpoko langileak modu eraginkorrean babestea da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ari direnean.

Prozedura honekin, urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, bete nahi da, zeinaren 3. artikulua enpresa-koordinazioaren helburu bezala honakoak ezartzen baititu:

- *Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean, 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, lantokian parte hartzen duten enpresek prebentzio-ekintzen printzipioak modu koherente eta erantzulean aplikatzen direla.*
- *Lantokian parte hartzen duten enpresek lan-metodo egokiak aplikatzen dituztela.*
- *Lantokian garatzen diren jarduera ezberdinen arteko elkarreragina kontrolatzen dela, bereziki arrisku larri edo oso larriak sor ditzaketenak, edo langileen segurtasun eta osasunari dagokionez, lantoki berean garatzen diren jarduerak bateraezinak direnean.*
- *Arriskuak prebenitzeko neurriak ikastetxean jarduten duten enpresetako langileei eragin diezaieketen arrisku egiazkoekiko egokiak izatea.*



2 Aplikazio-eremua

Prozedura hau ikastetxeko Zuzendaritzak kontratatutako enpresek edo langile autonomoek bertan eginiko obra edo zerbitzu guztiei aplikatuko zaie.

Enpresa bakoitzak laneko arriskuen prebentziorako arduradun bat izendatuko du, eta haren bitartez egingo dira prozedura honetan aurreikusitako jarduera guztiak. Jarduerak ez dira langile guztiekin banaka egin beharko, langile autonomoen kasuan izan ezik.

Ikastetxeak instalazioak beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei, publiko zein pribatuei uzten badizkie beste edozein jardueratarako, ez dira enpresa parte-hartzaitzat joko eta bisitariek jasotzen duten trataera bera jaso beharko dute, hau da, larrialdiko neurriei buruzko informazioa emango zaie.

3 Erantzukizunak

Ikastetxeko Zuzendaritzaren ardura izango da ikastetxean lan bat egingo duten enpresa edo autonomoei prozedura honi buruzko informazioa ematea, horretarako idatzi diren dokumentuak betez.

Gainera, dokumentu horiek erregistratu eta artxibatu beharko ditu.

4 Koordinaziorako baliabideak eta beharrezko dokumentazioa

Ikastetxeko Zuzendaritzak izango du ardura koordinaziorako baliabideak ezartzeko eta informazioa partekatzeko prozesua martxan jartzeko.

Oro har, koordinaziorako neurri hauek hartuko dira:

- Informazioa eta dokumentazioa elkarren artean trukatzea
- Hasierako bilera
- Kontratatutako enpresentzako segurtasun neurri orokorrak

Informazioa eta dokumentazioa elkarri ematea ikastetxearen eta parte hartuko duten enpresa eta autonomoen ardura da.

Erabili beharreko dokumentazioa ondoko ataletan zehazten da.



4.1 Ikastetxeak enpresari edo langile autonomoari eskatu behar dion dokumentazioa

Ikastetxeko Zuzendaritzak dokumentu hauek eskatu beharko dizkio ikastetxean lan egin behar duen enpresa edo langile autonomoari:

a) 1. Dokumentua: Enpresaren identifikazioa, jardueraren deskribapena eta kontratatutako lanen arriskuen ebaluazio zehatza (horretarako kontuan hartu beharko da ikastetxeak emandako dokumentazioa, dokumentu honen 4.2 atalean azaldutakoa). Bertan egin beharreko lanen analisi xehatua egingo da, kontuan hartutako arriskuak zehaztasunez deskribatuko dira, erabiliko diren laneko ekipamendu eta produktuen zerrenda emango da eta hartuko diren babes-neurri guztiak azalduko dira, norbanakoak zein taldekoak.

Arriskuen ebaluazio honetan ere emango dira lanek ikastetxeko langileei eragin diezazkieketen arriskuak eta horiek prebenitzeko hartuko diren neurriak. Bereziki, lanak egiteagatik areagotu edo alda daitezkeen arriskuak ebaluatu beharko dira.

b) 2. Dokumentua: Laneko arriskuak prebenitzeari buruzko araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen direla frogatzen duen zinpeko deklarazioa edo ziurtagiria.

4.2 Ikastetxeak enpresari edo langile autonomoari eman behar dion informazioa

Lanak hasi aurretik, ikastetxeak enpresari edo langile autonomoari gai hauei buruzko informazioa eman beharko dio:

- Ikastetxeko edo lan-eremuko arriskuak, langile autonomoak edo enpresak egingo dituen lanei eragiten badiete, eta arrisku horien aurrean hartu beharreko prebentzio-neurriak. Horretarako, informazioa hitzez emateaz gain, dokumentu honen II. eranskina emango dio enpresaren ordezkariari edo langile autonomoari.

Horretaz gain, nahitaezkoa izango da enpresa eta langileei idatzizko jakinarazpena ematea ikastetxean Hasierako Ebaluazioan jaso ez den arriskuren bat ageri denean, normalean matxuraren batengatik edo espazio, instalazio edo ekipamenduren baten narriadura gertatu berriagatik. Era berean, ikastetxeak horren berri emango dio Hezkuntza Ordezkaritzaren Unitate Teknikoari eta Prebentzio Zerbitzuari.

- Kontratatutako enpresentzako segurtasun neurri orokorrak (I. eranskina).
- Larrialdietarako neurriei, lan-eremuaren ebakuazio-planoei eta sua itzaltzeko bitartekoei buruzko informazioa.



5 Jarduteko prozedura

Atal honetan, koordinazio prozesuaren fase bakoitzean kontuan izan beharreko alorrak eta elementurik garrantzitsuenak jasotzen dira.

5.1 Dokumentazioa eskatzea eta informazioa partekatzea

Lanak hasi baino lehen, ikastetxeak 4.1 atalean zehaztutako informazioa eskatuko die enpresei:

- 1. dokumentua
- 2. dokumentua.

Bestalde, 4.2 atalean zehaztutako dokumentazioa eta informazioa emango dizkie:

- II. eranskina
- Kontratututako enpresentzako segurtasun neurri orokorrak, I. eranskina.
- Larrialdietarako neurriei, lan-eremuaren ebakuazio-planoei eta sua itzaltzeko bitartekoei buruzko informazioa.

Gainera, bien artean informazioa elkarri emateko eta komunikazioetarako data bat adostuko dute.

5.2 Koordinaziorako hasierako bilera eta bilerako akta

Hasierako bileran, enpresak edo langile autonomoak ikastetxeko edo beste enpresetako langileei eragin diezaiekeen arriskuak jakinaraziko ditu, baita horiei aurre egiteko babes-neurriak ere.

Egin beharreko lanengatik ikastetxeko edo beste enpresetako langileentzako arrisku larriak edo oso larriak sor litezkeenean, idatziz emango dira horri buruzko informazioa eta arrisku horiek desagerrarazi edo txikiagotzeko hartuko diren babes-neurriak.

Bestalde, ikastetxeak parte hartzen duten enpresetan eragina izan dezaketen arrisku eta babes-neurriei buruzko informazioa emango du (bai ikastetxearenak izan, bai beste enpresa batzuenak izan) eta Larrialdi Planaren oinarriak azalduko ditu.

Gainera, langileak lan-eremura lagunduko ditu sua itzaltzeko bitartekoak eta ebakuazio planoak non dauden erakusteko. Informazio hori lanetan parte hartu behar duen enpresa bakoitzari eman behar zaio.

Hirugarren dokumentuan xedatutakoaren arabera, bileraren akta egingo da eta bertan bileraren lekua, data eta ordua azalduko dira, baita parte-hartzaileak, elkarri emandako dokumentazioa eta informazioa eta beste arlo eta akordioak ere, egokia dela irizten bazaio.

Hasierako bileraz gain, behar bezain beste bilera egingo dira, eta horien guztien akta idatziko da.



Ikastetxeak prozedura honetan sortzen diren dokumentu guztien sinatutako kopia bat erregistratu eta artxibatuko du.

Hala, exijitzen diren segurtasun- eta osasun-baldintzak betetzen dituzten enpresen zerrenda osatuko eta zabaltzen joango da, kontratazio gehiago egiten diren heinean. Lan berarekin lotuta kontratazio gehiago egiten direnean, zerrendan dauden enpresek ez dute aipatutako dokumentazioa eman beharko.

5.3 Ikastetxeko langileei informazioa ematea

Ikastetxeko Zuzendaritzak ikastetxeko langile guztiei, irakasle zein bestelakoei, jakinaraziko dizkie ikastetxean egiten ari diren enpresa-lanek sor ditzaketen arriskuak.

Egin beharreko lanengatik ikastetxeko edo beste enpresetako langileentzako arrisku larriak edo oso larriak sor litezkeenean, idatziz eta obligazio hori bete dela berma dezaketen sistemak erabiliz (sinadura-bilketa, klaustroko akta, sistema telematikoak eta abar) emango dira horri buruzko informazioa.



6. Ikastetxeetako obretarako enpresa parte hartzaileen prozeduraren berezitasunak

Eraikuntzako segurtasuna eta osasunari buruzko 1627/97 Errege Dekretuak gutxieneko segurtasun eta osasun-baldintza batzuk ezartzen dizkie enpresei **eta sustatzaile bezala jarduten duen pertsona edo erakundearen ardura da prebentzio-neurrien prozesua abian jartzea.**

Ikastetxeak beti eskatu beharko dizkio kontratistari, enpresari, langile autonomoari edo sustatzaileari (Sailak edo Udalak kontratatutako obretan) kontratatutako obrak sortutako arriskuei buruzko idatzizko informazioa, ikastetxeko langile eta erabiltzaileen segurtasunari eragiten dionean, eta baita horiek arindu edo desagerrarazteko prebentzio-neurriak ere.

Ikastetxean egingo diren obrak Sailak edo Udalak kontratatzen baditu, Saila edo Udala izango da sustatzailea, eta sustatzaile bezala haiek dute prebentzio-neurriak hartzeko prozesuaren lidergoaren ardura.

6.1 Proiekturik gabeko lanak

Eraikina konpondu, berritu edo mantentzeko lanetan kontratazioa ikastetxeak zuzenean egiten badu, autonomo edo enpresa bat kontratatzean ikastetxea lanaren sustatzaile bihurtzen da automatikoki eta, ondorioz, ikastetxeko Zuzendaritzaren esku geratzen dira sustatzailearen ardurak eta jardueren koordinazio-prozesuaren lidergoa.

Horrez gain, **ikastetxeak, sustatzaile gisa, langile autonomoak zuzenean kontratatzen baditu**, kontratatutako langile horien **kontratista bihurtuko da** eta, beraz, sustatzaileei dagozkien ardurez gain, **kontratistei dagozkien betekizunak eta erantzukizunak ere bere gain hartu beharko ditu.**

Beraz, kasu guztietan, obra bat kontratatzean ikastetxeak sustatzaile gisa jarduten du eta kasu horietan, honako egin behar du ikastetxeko Zuzendaritzak, kronologikoki:

Deskribatu zergatik egin behar dituen obrak.

Identifikatu non egin behar diren obrak.

Aurreikusi zer eragin izan dezaketen obrek espazio eta/edo instalazioetan.

Obra motan eskumena duen teknikari batek parte hartzea eskatu. Adibidez: koadro elektrikoak aldatzeko edo premia berrietarako linea berriak jartzeko, ingeniari elektrikoa behar da; eraikinaren egituraren aldaketak egiteko, arkitektoa, eta abar.

Dagokion ordezkariari jakinarazi obrak ikastetxearen espazioen banaketan edo erabileran eragina duen kasuetan.

Eskatu obra txikiak egiteko lizentzia udalari.

Esleitu obra. Enpresa esleipen hartzaileak bereganatu eta bete egin beharko du arriskuak ebaluatzeko azterlana, dagoeneko eginda dagoena.



Obrak egiten direnean, bete arriskuak ebaluatzeko azterlanaren jarraipenari buruzko txostenen edukia .

Idatzi obra egoki jasotzeari buruzko akta, gero obra eta arriskuak ebaluatzeko azterlana ikastetxearen aurrekontuaz ordaintzeko.

**Obra egiteko bi enpresak edo enpresa gehiagok parte hartzen dutenean ,
ikastetxeak obraren segurtasun-arduradun bat izendatuko du.**

Ikastetxeko Zuzendaritzak honako dokumentazio hau eskatu beharko dio enpresa kontratistari:

Prebentzioko zerbitzuaren modalitatea.

Obraren segurtasuna kontrolatzeko, enpresako pertsonalaren izendapena.

Laneko Lurralde Ordezkaritzan aurkeztutako dokumentazioaren kopia.

Erantzukizun zibil profesionaleko aseguruia, eguneratuta.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean dituzula egiaztatzen duena.

Azpikontratazioa legea betetzea, azpikontratisten zerrenda eta azpikontratisten erregistro liburuan izena emanda izatea.

6.2.- Larrialdietarako obrak

Ohiz kanpo, azkar eta urgentziaz egin beharreko obretan, kontratazioa ahoz egin ahal izango da, eta 6.1 atalean zehaztutako dokumentazio guztia gerora beti, baina obra ordaindu aurretik beti ere.

6.3. Proiektu teknikoa prestatzea

Ikastetxeko zuzendariak, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean eta ikastetxerako, kontratatu ahal izango ditu hornitzaileen kontratuak, aholkularitzakoak eta zerbitzuak ematekoak, betiere diru-kopuruarengatik kontratu txiki izaera badute, EHAren 196/1998 Dekretuko 15. artikulua araber.



7. Lege-erreferentziak

31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa (azaroaren 10eko BOE, 269. zk.)

54/2003 Legea, abenduaren 12koa, lan-arriskuen prebentzioari buruzko lege-esparrua aldatzen duena (abenduaren 13ko BOE, 298. zk.)

171/2004 Errege-Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena enpresa-jardueren koordinazioaren arloan (urtarrilaren 31ko BOE, 27. zk.)

50/1998 Legea, abenduaren 30ekoa, lan-arriskuen prebentzioari buruzko legea aldatzen duena (abenduaren 31ko BOE, 313. zk.)

39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onartzen duena (urtarrilaren 31ko BOE, 27. zk.)

780/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, 39/1997 Errege Dekretua aldatzen duena (maiatzaren 1eko BOE, 104. zk.)


142/2008 Dekretua, uztailaren 22koa, Euskadiko Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroa (REASC/EEBE) sortzen duena eta haien funtzionamendua arautzen duena. (Abuztuaren 1eko EHAA, 146. zk.)

196/1998 Dekretua, uztailaren 28koa, Euskal Eskola Publikoa eratzen duten ikastetxeen ekonomia- eta finantza-araubidea arautzekoa. (Irailaren 14ko EHAA, 174. zk.)

1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-lanetarako segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena. (Urriaren 25eko BOE, 256. zk.)



8. Fluxugrama





- **Dokumentuak (1, 2 eta 3)**
- **Eranskinak (I eta II)**